

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. AURREKONTU MURRIZKETA "JATORRAK"
2. BANKUEN ERRESKATEAN GALDUTAKO MILAKA MILIOI EUROAK
3. OSASUN ETA HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN ALDERAKETA 2014AN
4. PENTSIODUNEN SINADURAK ERRETIRO DUIN BATEN ALDE
5. ERRENTA BERMATUA: FISKALITATE INJUSTOAK BALDINTZATURIKO PRESTAZIO ESKASA
6. PERTSONEN OSASUNA ETA ETORKIZUNA GERO ETA ESKU GUTXIAGOREN MENPE
7. PROPOSAMENA: GUTXIENGO SOLDATA HANDITZEA

1.- AURREKONTU MURRIZKETA “JATORRAK”

Joan den urriaren 14an Finantzen Euskal Kontseilua bildu zen. Bi eginkizun zituen: lehena, EAEko administrazioek (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) aurten izango dituzten diru-sarrerak eguneratzea. Bada, eguneratzeak dioenez ogasunek aurreikusi zutena baino 473 milioi euro gutxiago bilduko dute. Baina hau ikusteko dago, izan ere, duela urtebete egin zuten aurreikuspena baino 200 milioi gutxiago bildu baitzen urte amaieran.

473 milioi diru asko da. Horrekin ia-ia Diru-sarrerak bermatzeko Errenta (DBE), Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) guztia ordaintzea posible litzateke. Halere, berehala hasi dira hitzak manipulatzeko. Horretarako, hiru Diputatu nagusiek eta Ogasun sailburuak, behin eta berriz esaten dute ez dela murrizketarik izango, eta EITBk estrategia honetan laguntza ematen die. Oraingoan ere agerian geratu da lasai asko itxuraldatzen dutela errealitatea.

Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek 2016ko aurrekontuak egin zituztenean ez zeukaten dirua ere aurreikusi zuten. Beraz, nola liteke murrizketarik egin behar ez izatea?

Baieztapen hau justifikatzeko Ogasun sailburuak zeharkako irtenbide bati heldu dio: Antza, Rajoyk autonomi-erkidegoei aurrez espero zena baino defizit handiagoa metatzeko aukera emango die. Kasu hoberenean, beraz, Jaurlaritzak (ez gainerako erakundeek) zor handiagoa hartzeko aukera luke, 271 milioi gehiago. Baina honek azalpenen bat eskatzen du, eurek ez baitute ematen:

- Lehenik, 271 eta 473 milioien arteko aldea 202 milioi dira. Zenbateko hau (gutxienik 202 milioi) onartutako

aurrekontutik kendu beharrekoa izango da (60 milioi Eusko Jaurlaritzaren kasuan). Baina trikimailu bat asmatu dute hori egiteko: “murrizketa” hitza erabili ordez “onartutako gastua ez exekutatzeko” esango dute. Beste era batera ere esateko modua badago: Murrizketa “jatorrak”.

- Bigarrenik, gure agintariek maite dute gobernu familiariekin parekatzea. Bada, aurten etxean lanari esker 271 milioi irabazi ordez banku batekin zorpetu beharra badaukat, arazo bat izango dut: diru hori, gehi interesak, etorkizunean itzuli beharko dut. Gero gerokoak... Murrizketak, 271 milioiko zuloa (gehi interesak) orekatzeko.

Behin argi geratu delarik murrizketak izango direla (2016an eta gero), aipagarria da Kontseiluak eman duen beste albistea: 2017ko diru-bilketaren aurreikuspena. 13.498 milioi euro biltzea espero dute. Duela urtebete aurten bilduko zela esan zuten kopuru bera. Horrek zer esan nahi du?

2017ko aurrekontuak egiteko oinarria diru-bilketari buruzko estimazio hori izango da. Horrenbestez, datorren urteko aurrekontuak ezin dira 2016rako erabaki zirenak baino handiagoak izan. Kontutan izanik zor handiagoa ordaindu beharko dela, emaitza izango da datorren urteko aurrekontuetan gizarte-gastua moztu egingo dela 2016koaren aldean.

Azkenik, gai honi buruz bi iruzkin egin nahiko genituzke:

- Finantzen Euskal Kontseiluko kideek baztertu egin dute diru-bilketa handitzea iruzur fiskalaren jazarpena eginez edota zergak aberats, enpresa

eta kapitalei gehituaz. Diru-bilketa estimatutakoa baino txikiagoa da. Hau ikusirik, helburua benetan balitz kalitatezko zerbitzu publikoak edota gizarte-prestazio egokiak izatea, ahalegin guztiak egin beharko lituzkete diru-bilketa hobetze aldera. Euren esku dago, baina ez dute nahi. Beren lagunek, errenta altuak dituztenek eta enpresarioek, ez dute zerga gehiago ordaindu nahi. Honek adierazten du bat datozela egungo zerga-politikari buruz (europar batez besteko mailara iristeko ia 6.000 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke), horren ondorioa izan arren osasun edota hezkuntza gastua Europako urrienetakoa dela.

- Aurtengoan ere eztabaida politikotik at geratu da 2017ko aurrekontuak ia itxita daudela. Barregarria da hau gertatu den egun berean entzutea oposizioko alderdiek aurrekontuen inguruko tratuak eskaini dituztela. Nola adosten da dagoeneko erabakita dagoen zerbait? Aurrez ontzat emanda; ez dago beste aukerarik. Finantzen Euskal Kontseiluko jendea gustora dago; oposizioak adostasuna nahi duela errepikatzen badu, ez dio zertan beldurrik izan.

EAEKO DIRU-BILKETA AURREIKUSPENAK.
2016-2017. MILIOI EURO

2016 (OTSAILA)	2016 (URRIA)	2017 (2016 URRIA)
13.498	13.025 (-473 milioi)	13.498

PRESIO FISKALA. EAE-EUOPAR BATASUNA
(% BPG). ALDEA MILIOI EUROTAN

EAE	EUOPAR BATASUNA	ALDEA (% BPG)	ALDEA (MILIOI EURO)
%31,2	%40,1	8,9 PUNTU	5.900

2.- BANKUEN ERRESKATEAN GALDUTAKO MILAKA MILIOI EUROAK

2008ko subprime krisiak mundu osoko ekonomia eta, batez ere, finantza sistema hankaz gora jarri zuen. Horien artean, Estatu espainiarrekoa kaltetuenetakoa suertatu zen; eta hainbestearinokoa izan zen kolpea, 2009. urtean estatuak "banka sistemaren berrestrukturazio prozesua" abian jarri baitzuen.

Beraz, Madrilgo gobernuak hiritar guztien dirua erabili zuen gutxi batzuen nahi eta beharrak asebetetzeko; kapitalismoan askotan ematen den paradigma jarraituz: "irabaziak pribatuak dira, galerak publikoak".

Horrela, Espainiako Bankuaren arabera, 2009 eta 2016 urteen artean gutxienez 248.493 milioi euro bideratu dira laguntza gisa banka sistemara, Bankia bezalako entitateak sortzeko. Horietatik, soilik 130.799 milioi euro berreskuratu dira, emandakoaren erdia baino zeozer gehiago. Berreskuratu ez dena edota galdutakoa erreskatean 117.694 milioi euro izan dira; ideia bat izateko, 2015ean Estatu espainiarrean sortutako BPGaren %10,9 beste.

Laguntza horiek, bost atal ezberdinetan sailkatzen dira; eta bakoitzaren kopurua eta berreskuratu dena ondorengo taulan adierazita dago:

Laguntza mota	Eman den kopurua (M €)	Berreskuratu dena (M €)	Berreskuratu ez dena eta galerak (M €)	Berreskuratutako zatia (%)
1) Bankuak birkapitalizatzeak	61495	3990	57505	6,49
2) Bankuak erostekoak	1803	673	1130	37,33
3) Emandako garrantiak*	123207	109836	13371	89,15
4) Kreditu ezohikoak	16300	16300	0	100
5) SAREB	45688	0	45688	0
Guztira	248493	130799	117694	52,64

*Garrantia guztien kopurua ez da ezaguna, adierazitakoa ezagutzen den gutxiengo kopurua da.

Beste alderaketa bat egite arren, Estatu espainiar osoan langabeziagatiko prestazio guztietara bideraturiko diru-kopurua 1.586,8 milioi eurokoa izan da 2016ko irailean; kopuru hori aintzat hartuta, 156,6 hilabetetako (edo 13 urte baino gehiagoko) langabezia prestazioak ordaintzeko diru aña erabili da banka sistema erreskatatzen.

3.- OSASUN ETA HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN ALDERAKETA 2014AN

Hezkuntzara eta osasunera bideratzen diren baliabideak gero eta murriztagoak dira. Gainera, ekonomiak sortzen duen moneta balio ofizialarekiko alderatuz (BPG delakoarekiko, hain zuzen) 28 estatuen Europar Batasunak eta Estatu espainiarrak baino baliabide gutxiago bideratzen dira Hego Euskal Herrian osasun eta hezkuntzara.

Ondorengo taulak erakusten duen bezala, 2014an hezkuntzara eta osasunera bideratzen diren diru baliabideak ekonomiako %5 eta %7,2 dira Europar Batasunean eta %4,1 eta %6,1 Estatu espainiarrean. EAEn eta Nafarroan, aldiz maila askoz baxuagoa da bi alorretan.

Gastu publikoa hezkuntza eta osasunean (BPGren %tan)

Lurraldea	Hezkuntza	Osasuna
EB-28	5	7,2
Estatu espainiarra	4,1	6,1
EAE	3,9	5
Nafarroa	3,1	5

Zehazki, EAeko gastu publikoa hezkuntzan EB-28koa baino 1,1 puntu baxuagoa da, Nafarroakoa 1,9 puntu txikiagoa delarik. EAE eta Nafarroako gastu publikoa osasunean EB-28koa baino 2,2 puntu murriztagoa da, eta

Estatu espainiarrekoa baino 1,1 puntu baxuagoa.

Hego Euskal Herrian Europar Batasunaren mailan egon nahi badugu eta, are gehiago, Estatu espainiarrekoarenean, osasunera eta hezkuntzara bideratzen diren baliabide publikoak handiagoak izan beharko dira. Bestela, gizartearen ongizatea eta bizikalitatea gutxitu besterik ez dira egingo.

4.- PENTSIODUNEN SINADURAK ERRETIRO DUIN BATEN ALDE

Pasa den irailaren 21ean EAeko pentsiodunen plataformek 71.724 sinadura aurkeztu zituzten Gasteizko Legebiltzarrean pentsio guztiak hilean 1.080 euro baino gutxiagokoak izan ez daitezzen. Horretarako, kopuru horren azpitik dauden pentsioei osagarri bat ematea proposatzen dute, bizitza eta erretiro duina bermatzeko asmoz.

Gogorazten dutenez, EAEn 250.000 pentsiodun inguruk hilean 700 euro baino gutxiagoko pentsioa dute, gehienak emakume eta lan prekarioetan aritutako pertsonak direlarik. Tamalez, bildutako sinadura guzti horiek sinbolikoak dira, bere garaian aurkeztu zuten Herri Ekimen Legegilea bertan behera utzi baitzuten EAJ, PP, PSE eta UpyD alderdiek.

Egoera hau guztiz kontrakoa da Nafarroan, bertako Legebiltzarrak onartua baitu ekimen legegile berberaren tramitea. Hori aurrera eramateko, pentsiodunen plataformak sinadura bilketan dabilta une honetan Nafarroan.

Irailaren 25ean EAeko hauteskundeon ondorioz eratu den Legebiltzar berriak itxaropena ematen die pentsiodunen plataformei gai honen inguruan eta baita Babes eta Gizarte Segurantza Sistema propioa

sortzeko plazaratzen duten proposamenari buruz ere.

ELAK babestu egin du sinadura bilketa hau eta pentsiodunen plataformako kideei lankidetzara eskeini eta indarra eman nahi diegu. Borroka justu honetan bidelagunak gara.

5.- ERRENTA BERMATUA: FISKALITATE INJUSTOAK BALDINTZATURIKO PRESTAZIO ESKASA

Nafarroako Gobernu berriak Gizarteratze Errenta aldatzeko eta gizarte babesa handitzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hori Gobernuari eusten dioten lau alderdiek sinaturiko akordio programatikoa dago jaso, eta horren arabera, aldaketa hori aurreneko sei hilean egin beharra zegoen.

Urtebete baino gehiago joan bada ere, eta arau berria abian jarri ez bada ere, Nafarroako Gobernuak Parlamentura igorri du Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Lege Proiektua, hark onetsi dezan. Proiektuak egungo prestazioaren izena ere aldatu du, eta aurrerantzean, Errenta Bermatua esanen zaio.

Azken urteetan prestazio honek aldaketa ugari jasan ditu. 1999an Oinarrizko Errenta ezarri zen, eta aipatzekoa da lege hori gizartearen mobilizazioari esker lortu zen. Izan ere, Herritar Legegintza-Ekimen batek eta greba orokor batek Administrazioan 35 orduko lanaldia arautzea eta Oinarrizko Errenta ezartzea ekarri zuen.

Prestazioaren aldaketarik handiena 2012an iritsi zen ordea, Gobernuan UPN eta PSN zeudela. Departamentua PSNren ardurapean zegoen, eta murrizketa izugarria bultzatu zuen, prestazioaren izena bera aldatuta, Oinarrizko Errentatik Gizarteratze Errentara.

Bitartean, Nafarroako biztanleriaren % 14,5 pobrezian eta gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dago, eta 2008tik % 68,6 igo da tasa hau. Gainera, langabeen % 52,8k ez dute jasotzen inolako langabezia prestaziorik.

Testuinguru honetan iritsi da Errenta Bermatuaren Lege Proiektua.

Gehiegi luzatu den Lege aldaketa. Kontuan hartuta zer-nolako gizarte-egoera kezagarria dagoen Nafarroan, bertako Gobernuak behar bezalako gizarte babesa bermatzeko erantzukizuna du, eta Gizarteratze Errentak ez du inola ere holako babesik eman.

Gauzak horrela, premia osoz ekin behar zaio, eta ez bazaio berehalakoan ekiten, jende aunitzek jarraituko du bere behar oinarrizkoenak bete gabe. Horren haritik, Gobernuak urtebetea baino gehiago behar izan du ekiteko, eta hori gehiegi da.

Baina hau ez da okerrena, murrizketa larriak dakartza eta Proiektu honek zenbait arlotan. Horietako bat pertsona bakarreko familia-unitateei prestazioaren zenbatekoa murriztu zaiela da, eta gutxieneko soldataren erreferentzia desagertzen dela bide batez.

Nafarroako Gobernuak 655,2 eurotik 600 eurora murriztu nahi die prestazioaren zenbatekoa pertsona bakarreko familia-unitateei.

Nabarmendu behar da pertsona bakarrekoak direla prestazioa jasotzen duten familia-unitateen ia erdiak.

Beste alde batetik, trabak jartzen zaizkie 18 eta 24 urte bitartekoei prestazioa jasotzeko. Gizarteratze Errentak hasieran gutxienez 25 urte izateko balditza zuen, baina 18 urte izatera pasa zen aldaketa bidez.

Orain proposatzen denarekin 18 eta 24 urte bitartean dituztenek, bi urtez euren kabuz bizi direla, eta urte betez Gizarte Segurantzaren kotizatu dutela frogatu beharko dute.

Dena den, onartu behar da ere Errenta Bermatuak egungo prestazioa zenbait alorretan hobetzen duela. Hala nola prestazioa jasotzeko ez da erregulartasun legalik eskatuko, 65 urtetik gorakoek eskatu ahal izango dute, 2 pertsona baino gehiagoko familia-unitateei prestazioaren zenbatekoa igoko zaie eta prestazioa behar egoerak jarraitzen duen bitartean irautea, orain arteko 30 hilabeteetako muga kenduz

Honek ez du suposatze, inondik inora, beharra duten pertsona guztiei iritsiko zaienik, ezta iristen zaienentzako nahikoa izango denik ere.

Izan ere, prestazio hau fiskalitate eskas batek baldintzatua dago. Gizarte babesa eta justizia soziala aberastasuna banatzeari daude zuzenean lotuta. Jakina, Errenta Bermatua bezalako prestazioa ezartzeak (edo Oinarrizko Errenta, izena edozein izanda ere) gastu ekonomikoa dakar, bai eta hori aski izateak ere. Gastua handiagoa edo txikiagoa izanen da, zer babes ematen duen; hau da, zenbat eta gizarte premia gehiago babestu, eta zenbat eta bizi-maila handiagoa bermatu, hainbat eta kostu handiagoa izanen du aurrekontu publikorako.

6.- PERTSONEN OSASUNA ETA ETORKIZUNA GERO ETA ESKU GUTXIAGOREN MENPE

Munduko ekonomia eta boterea gero eta pertsona gutxiagoren esku dago. Hau ez da berria, XIX. mendeko ekonomilari kritiko famatu batek zioenez kapitalismoan enpresen joera monopolio bilakatzea baita. Hori da banka sisteman ematen ari dena azken

urteotan, edo energia sektorea orokorrean izaten ari dena, eta baita Bayer eta Monsantoen elkartzea ere, besteak beste.

Kasu guzti horietan, galtzailea eroslea da, kontsumitzailea. Azken batean, galtzailea herritarra, hiritarra, langilea da. Irabazlea, aldiz, enpresa transnazionala eta bere jabe kapitalista. Arrazoiak xumea da: monopolioan, edo bere bertsio arinagoa den oligopolioan, boterea kontzentratu egiten da. Eta gero eta botere gehiago, gero eta mozkin ekonomiko handiagoak.

Baina Bayer eta Monsantoen batzea are larriagoa da: diru, mozkin eta botereaz hitzegiteaz gain, osasunaz eta etorkizunaz ari garelako. Lehenak medikamentu eta farmakoak diseinatu eta ekoizten bazituen, bigarrenak genetikoki eraldaturiko haziak, barazkiak eta toxikoak diseinatu eta ekoizten zituelako: trasgenikoak, hain zuzen.

Bi horiek lotu eta batu ezker, pertsonen osasuna osorik baldintzatu eta eraldatzen duen katea dugu: natura, jakiak, medizina eta osasuna menpean hartzen dituen industria. Esku gutxi batzuen menpe dagoen industria, gainera.

Ezer egin ezen, joerak okerrera besterik ez du egingo. Industria hau guztiz jasangaitza da, eta aldaketa klimatikoan eragin handienetakoa sortzen du. Gobernuak ez dute ezer egin orain arte, asko jota transnazional horien aldeko lege eta apustuak. Gizartearen erantzukizuna da, beraz, elikadura burujabetza jasangarria bultzatu eta lortzea, mundua mundu izan dadila nahi badugu behintzat.

**7.- PROPOSAMENA: GUTXIENGO SOLDATA
HANDITZEA**

Nazioarteko Lanaren Erakundeak Estatu espainiarrean duen zuzendariak, Joaquin Nietok, soldata minimoa igotzeko aukera handia dagoela azpimarratu berri du. Eta, ez hori bakarrik, gutxiengo soldataren igoerak langile asko pobrezia egoeratik aterako dituela ere esan du.

Une honetan, gutxiengo soldata hileko 655,20 eurotan kokatzen da 12 ordainalditan. Estatu espainiarrean populazioaren %13ak kobratzen duelarik kopuru hori, Europar Batasunean soldata minimoa kobratzen dutenak %9 diren bitartean. Beraz, gutxiengo soldataren igoera batek populazioaren zati handi baten ongizatea hobetu dezake.

Gaur egungo gutxiengo soldata batez besteko soldataren %41 inguru da Estatu espainiarrean, ehuneko are baxuago bat Hego Euskal Herrian (hemen soldatak altuagoak baitira batez bestean). Gutxiengo soldata optimoa kalkulatzeko erabiltzen den batez besteko soldataren %40-%60 marjina kontuan izanik, Estatu espainiarrean gutxiengo soldata hileko ia 1.000 eurora igo daiteke, bertako batez besteko soldata hileko 1.650 euro ingurukoa baita. HEHan gutxiengo soldata beti ere kopuru horren gaineratik ezarri daiteke: hemengo batez besteko soldata hilean ia 2.000 eurokoa da; horren %60 hilean 1.200 eurotan kokatzen delarik.

Gainera, azken urteetan Estatu espainiarrean soldaten murrizketa sakona eman dela salatu du, produktibitatea era erraldoian igo den bitartean. Hori dela eta, gutxiengo soldata igotzeko arrazoiak daudela baieztatuz.